



EBAZPENA

LEA/AVC 247-SAN-2017 zk. espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. ENPRESAK.....	4
1. Radio Taxi Donosti Elkartea.....	4
2. Vallina Hermanos SA.....	4
3. Donostialdea Sociedad de Servicios SL.....	4
4. Equipamientos GPS Auriga SL.....	4
III. ERREFERENTZIAZKO MERKATUA.....	5
1. Produktu-merkatua.....	6
2. Merkatu geografikoa.....	8
3. Erreferentziazko merkatuaren inguruan ateratako ondorioa.....	8
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	9
1. Kolusio-jokabidea.....	9
A. Aplikatu daitezkeen araudia.....	9
a. LDLren 1. artikulua.....	9
b. EB Erregelamendua.....	9
c. Europako Batzordearen gidalerroak.....	10
B. Jokabidea aztertzea.....	10
a. Jokabidea salbuestea.....	11
b. Lehia murriztea.....	12
2. Nagusitasunezko posizioaren abusua.....	13
3. Lehiari kalte egin diezaiokeen lehia desleiala.....	14
4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.....	15
IV. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA.....	16

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Lourdes Muñoa Corrales andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2018ko abenduaren 13ko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman zuen 247-ZEH-2018



zenbakiko «Donostiako taxien flotak kudeatzeko aplikazioak eta gailuak» espedientean:

I. AURREKARIAK

1. 2017ko abuztuaren 11n, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) RADIO TAXI DONOSTI ELKARTEAREN salaketa bat jaso zuen. Salaketan Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LDL) 2. artikulua arau-hauste posible baten berri ematen zen, nagusitasunezko posizioaren abusuari lotutakoa, non EQUIPAMIENTOS GPS AURIGA SL (EGA) enpresak uko egiten zion Donostiako hoteletatik, jatetxeetatik eta ospitaleetatik taxiak erreserbatzeko balio duen «1Taxi! Hotel» gailua («botoiak») hornitzeari, taxien sektoreko beste erakunde batekin eskusibotasun-kontratu bat izateagatik.

2. 2017ko urriaren 30ean, salaketa horren harira, Ikerketa Zuzendaritzak hasiera eman zion isilpeko informazioari.

3. 2017ko azaroaren 6an, RADIO TAXI DONOSTI elkarteari eskatu zitzaion honako informazio hau helarazteko LEAri:

EQUIPAMIENTOS GPS AURIGA SL (EGA) enpresarenak ez diren beste enpresa batzuen hoteletan instala daitezkeen gailuekin bateragarri egiteko flotak kudeatzeko sistema informatikoa ordezteak izango lukeen kalte ekonomikoaren zenbatespena.

Informazioa 2017ko azaroaren 30ean jaso zen LEAn.

4. Era berean, 2017ko azaroaren 6an, EGARI eskatu zitzaion honako informazio hau helarazteko LEAri:

- RADIO TAXI DONOSTI elkarteari Donostiako hoteletatik taxien flotak kudeatzeko «1Taxi! Hotel» izeneko gailua hornitzeari uko egiteko arrazoiak.
- Eskusibotasun-kontratua, baldin eta beste erakunderen batekin badauka.
- Gailu hori hornitzen duen Estatuko probintzien zerrenda.
- Hornitzeari uko egin dien Estatuko probintzien zerrenda.

Informazioa 2017ko azaroaren 23an jaso zen LEAn.

5. 2017ko azaroaren 27an, EGARI eskatu zitzaion lehen eskatutako eskusibotasun-kontratua helarazteko LEAri, bertan zeuden datu pertsonalak bereizi ondoren.

Informazioa 2017ko abenduaren 20an jaso zen LEAn.



6. 2018ko urtarrilaren 8an, honako informazio hau eskatu zitzaion, halaber, VALLINA HERMANOS SA enpresari –enpresa salatuak «1Taxi! Hotel» gailuaren hornikuntza eskusiboko akordio bat dauka enpresa horrekin–:

- VALLINAK Donostian taxi-zerbitzuak emateko erabiltzen duen forma juridikoa.
- Donostian operatibo dituen taxi-lizentzien kopurua.
- Donostian VALLINA etxearekin jarduten diren taxilari kopurua eta horretarako arrazoi juridikoa.
- VALLINAK Donostiako hoteletatik taxien flotak kudeatzeko erabiltzen dituen gailuak.
- Taxien flotak kudeatzeari dagokionez VALLINAK dituen eskusibotasun-kontratuen zerrenda eta eskusibotasuna eskatzeko arrazoiak.

Informazioa 2018ko urtarrilaren 23an jaso zen LEAn.

7. 2018ko maiatzaren 8an, RADIO TAXI DONOSTI elkarteari eskatu zitzaion honako informazio hau helarazteko:

- Elkarteak ostalaritza-establezimenduetatik taxiak automatikoki erreserbatzeko («botoiak») erabiltzen duen gailua (SPT), enpresa fabrikatzailea adieraziz eta «1Taxi! Hotel» gailuarekiko dituen desberdintasunak zehaztuz.
- Gailu horrekin eskusibotasun-kontraturik duen adieraztea. Ez badu, RADIO TAXI DONOSTI elkartekoak ez diren taxilariak erabiltzen duten adieraztea.
- Donostian gailu hori instalatuta duten establezimenduen zerrenda, zer jarduera gauzatzen duen adieraziz (hotela, jatetxea, etab.).
- «Botoiek» ematen duten zerbitzuengatik bere taxilari elkartuei kobratzen dien prezioa.
- EGAK instalatzea proposatu dizkion botoiak, enpresa fabrikatzailea adieraziz eta «1Taxi! Hotel» gailuarekiko dituen desberdintasunak zehaztuz.
- «1Taxi! Hotel» gailuen antzeko ezaugarriak dituzten eta ezagutzen dituzten «botoien» zerrenda, enpresa fabrikatzailea adieraziz.
- «Botoiak» instalatu ez diren establezimenduetan taxi-zerbitzua eskatzeko jarraitzen den prozedura.
- Adieraztea zer baldintzatan egin zion EGAK RADIO TAXI DONOSTI elkarteari konpentsazio ekonomikoa, «1Taxi! Hotel» gailua ez izatearen truke, eta konpentsazioaren zenbatekoa.

Informazioa 2018ko maiatzaren 21ean jaso zen LEAn.

8. Era berean, 2018ko maiatzaren 8an, VALLINA HERMANOS enpresari eskatu zitzaion honako informazio hau helarazteko:

- Donostian «1Taxi! Hotel» gailua («botoiak») instalatuta duten establezimenduen zerrenda, zer jarduera gauzatzen duen adieraziz (hotela, jatetxea, etab.).
- «Botoiek» ematen duten zerbitzuengatik bere taxilari elkartuei kobratzen dien prezioa.



- «1Taxi! Hotel» gailuen antzeko ezaugarriak dituzten eta ezagutzen dituzten «botoien» zerrenda, enpresa fabrikatzailea adieraziz.
- «Botoiak» instalatu ez diren establezimenduetan taxi-zerbitzua eskatzeko jarraitzen den prozedura.

Informazioa 2018ko maiatzaren 28an jaso zen LEAn.

II. ENPRESAK

1. Radio Taxi Donosti Elkartea

9. RADIO TAXI DONOSTI ELKARTEA (IFK: G20618195) Donostiako taxilarien elkarte bat da, RADIO TAXI DONOSTI izen komertzialarekin jarduten dena (helbidea: Aldapeta 16, behea, Donostia 20009). 150 taxilari dira elkarteko kide.

Taxiak erreserbatzeko 11 gailu ditu, «Nurit 8010» eredukoak, hoteletan, jatetxeetan eta Donostiako ospitaleetan instalatuta.

2. Vallina Hermanos SA

10. VALLINA HERMANOS SA (IFK: A20171229) garraio-zerbitzuak ematen dituen enpresa bat da (helbidea: Txingurri pasealekua 24, Donostia 20017).

Taxiak erreserbatzeko 35 gailu ditu, «1Taxi! Hotel» eredukoak, hoteletan, jatetxeetan eta Donostiako ospitaleetan instalatuta.

3. Donostialdea Sociedad de Servicios SL

11. DONOSTIALDEA SOCIEDAD DE SERVICIOS SL (IFK: B20588976), VALLINA TELETAXI izen komertziala duena, garraio-zerbitzuak ematen dituen enpresa bat da (helbidea: Txingurri pasealekua 24, Donostia 20017). Enpresa honen bidez, kudeaketako eta irratitaxiko zerbitzuak ematen dizkie VALLINA HERMANOS SA enpresak bere taxilari elkartuei. Donostian, 156 taxilari aritzen dira izen komertzial horren pean.

4. Equipamientos GPS Auriga SL

12. EQUIPAMIENTOS GPS AURIGA SL (IFK: B83691469), EGA izen komertziala duena, taxien sektoreari zuzendutako zerbitzu teknologikoak ematen dituen enpresa bat da. Hau da bere egoitza soziala: Tomás Bretón 7, Madril (posta-kodea: 28045).



III. ERREFERENTZIAZKO MERKATUA

13. Salatu diren jokabideak aztertu aurretik, jokabide horiek erreferentziazko zer merkatutan sortu diren zehaztu behar da. Merkatu hori, hain zuzen ere, Europako Batzordeak lehiaren esparruan Europar Batasuneko araudia ezartzeko erreferentziazko merkatua definitzeari buruz egin zuen komunikazioaren arabera definitzen da (97/C 372/03)¹, produktu-merkatuak eta merkatu geografikoak osatzen dutena.

14. Espediente honetan aztertu diren jokabideak **taxiaren zerbitzu publikoarekin** lotuta daude; turismo-ibilgailuetan egiten diren hiriko eta hiriarteko garraio publikoko zerbitzuen artean sartzen dira². Garraio publikoko zerbitzu horiek **langile autonomo** batek gauzatzen ditu, ordain ekonomiko baten truke; eta, gainera, oso araututa dagoen jarduera da, bai jarduera ekonomikoan sartzeari dagokionez –lizentzien kopuru mugatua ematen da–, baita jarduera gauzatzeari dagokionez ere³ – Administrazioak jartzen ditu prezioak; **pertsona fisikoei** bakarrik ematen zaie lizentzia; lizentziak titular bakar baten jarduera babesten du, gidari bakarra duena eta ibilgailu bakar eta jakin bat erabiltzen duena; geltokietan bezeroak jasotzeko txandak ezartzen dira, eta atseden hartzeko txandak eta ordu kopurua mugatuta daude–.

Taxiaren zerbitzu publikoa 3 segmentutan banatzen da, bezeroek zerbitzua nola kontratatzen duten:

- (i) bide publikoan dabiltzan ibilgailuak kontratatzen diren segmentua,
- (ii) taxi geltoki gisa gaituta dauden gunetan ibilgailuak kontratatzen diren segmentua (*street taxi* deiturikoak biak), eta
- (iii) telefonogune, taxi-irradi edo beste bitarteko baten bidez ibilgailuak kontratatzen diren segmentua.

Espediente honetan salatu den jokabidea hirugarren segmentuari dagokio.

¹ [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31997Y1209\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31997Y1209(01)&from=ES)

² Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena, Bilboko taxiari buruzko udal-ordenantzaren 33.1 artikulua aldatzeko proposamenaren inguruan Bilboko Udalak egindako kontsultari buruzkoa.

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/13-11313_espedientea INFORME TAXIS BILBAO DEFINITIVO-eus2.pdf

³ 2/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzen duena (2000ko abuztuaren 1eko EHAA, 146. zk.).



1. Produktu-merkatua

15. Erreferentziako produktu-merkatuari dagokionez, honela definitzen da, komunikazioaren 7. apartatuan:

erreferentziako produktu-merkatuak barne hartzen ditu kontsumitzaileek trukagarritzat nahiz ordezkagarritzat dituzten produktu eta zerbitzu guztiak, beren ezaugarriak, prezioa nahiz zertarako erabiliko diren kontuan izanik.

16. Taxiaren sektorean ohikoa den bezala, gaiarekin zerikusia duten bi enpresek, RADIO TAXI DONOSTI eta VALLINA TELETAXI, flotak kudeatzeko sistema bat⁴ daukate zentrolean instalatuta; eta, bi kasuetan, EGA enpresak merkaturatzen duena da.

Gainera, bi enpresek taxiak eskatzeko gailuak dituzte, flotak kudeatzeko sistematan txertatuta. Gailu horiek jendearentzat irekita dauden establezimenduetan instalatuta daudenez –ostalaritzako lokalak (hotelak, jatetxeak, etab.), joko- eta apustu-aretoak, osasun-zentroak–, establezimendu horietako langileek taxiak behar dituzte aurrez eskatu dituzten bezeroei zerbitzua emateko.

RADIO TAXI DONOSTI elkarteak 11 establezimendutan dauka instalatuta bere gailua (ostalaritzako 8 lokal, 2 joko-areto eta 3 ospitale); VALLINA TELETAXI enpresak, aldiz, 35 establezimendutan (ostalaritzako 31 lokal, 2 joko-areto eta 2 ospitale).

EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako informazioaren arabera, 2017an, ostalaritzako 1.337 lokal, 60 joko- eta apustu-areto eta 8 ospitale zeuden⁵.

17. RADIO TAXI DONOSTI elkarteak taxiak eskatzeko gailu jakin bat hornitzeko eskaerari ezezkoa emateagatik jarri zuen salaketa. Gailuak botoi bat dauka («botoiak»), «1Taxi! Hotel» izena du eta EGA enpresak, gailua komertzializatzen

⁴ Flotak kudeatzeko sistemei esker, kudeaketa efizienteagoa lortzen da, kokapena eta taxi-zerbitzuen egoera kontrolatuta, gidatze- eta lekualdatze-denborak aztertuta, bezeroentzako trazabilitatearen bidez, eta abar.

⁵ http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3452_est04b.px#axzz5azieYUee.

Bilatu diren EJSN kodeak:

5510 Hotelak eta antzeko ostatuak

5520 Turismo-ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk

5530 Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak

5590 Beste ostatu batzuk

5610 Jatetxeak eta janari-postuak

5630 Edariaren establezimenduak

9200 Ausazko jokoen eta apustuen arloko jarduerak

8610 Ospitaleko jarduerak



duenak, eksklusibotasun-kontratu bat sinatu du, Gipuzkoan, VALLINA TELETAXI enpresarekin. Esklusibotasun-klausula horren bidez, enpresa merkaturatzaileak salmenta handiagoa dauka bermatuta⁶, eta enpresa erosleak, aldiz, elkarte lehiakideko taxilariak erabiltzen duten gailuak baino prestazio handiagoak dituen gailu bat erabili ahalko du –bere iritzian–.

18. Nahiz eta taxiak eskatzeko gailua «botoiak» izenekoak izan, Europako Batzordeak erreferentziazko merkatua definitzen zuen komunikazioan aipatzen diren trukagarritasun- eta ordezkagarritasun-kontzeptuei jarraikiz, produktu-merkatua ez da gailu horretara mugatu behar, baizik eta trukagarritzat nahiz ordezkagarritzat hartzen den beste edozein gailu hartu behar da barne; hau da, antzeko helburuak lortzeko aukerak ematen dituen edozein gailu, hala, lokalen eta taxilarien edo elkartearen arteko komunikazioa ezarriz, taxi bat jendearentzat irekita dagoen lokal horretara bezero bat jasotzera joan dadin.

19. Horregatik, «botoiak» izeneko gailuekin batera, hala nola «1Taxi! Hotel» (salatu den enpresak merkaturatzen du eta VALLINA enpresak erabiltzen du), «Nurit 8010»⁷ (enpresa salatzaileak erabiltzen duen gailua), «Taxi Butler»⁸, «Star Taxi»⁹ eta antzekoak (prestazio hobe edo okerragoekin), taxia modu berean eskatzeko aukera ematen duen beste edozein gailu hartu behar da barne, dela telefono-dei baten bidez, dela mezu baten bidez –posta elektronikoa edo bat-bateko mezularitza erabilita–, dela Interneteko formulario baten bidez.

Ondorioz, produktu-merkatuan, «botoiekin» batera, telefonoak, tabletak eta ordenagailuak hartu beharko liriateke barne –besteak beste–, gailu horiek guztiek aukera ematen baitute jendearentzat irekita dagoen establezimendu bat eta taxilari edo elkarte bat komunikatzea.

20. Ezin da ukatu salatzaileak «1Taxi! Hotel» gailua nahiago duela, bere ezaugarri tekniko zehatzengatik, baina egia da, baita ere, beste gailu bat izateak («Nurit 8010»), inolako gailurik ez izateak edo «1Taxi! Hotel» gailuak matxuraren bat izateak

⁶ Zera adierazten da EGAK 2017ko ekainaren 23an TAXI DONOSTI elkarteari igorritako gutunean: «*Bere garaian, hoteletatik, jatetxeetatik eta abarretatik taxiak erreserbatzeko gailuak eskaini genizkizuen, eta ez zenuten horrekiko interesik izan. Hortaz, kontuan harturik beste bezeroak interesa zuela eta, esklusibotasun-itun baten truke, gailu bat baino gehiago erosteko eskaintza egin zuela, itun hori sinatu genuen».*

⁷ Salatzailearen arabera, 1999. urtean utzi zioten gailua fabrikatzeari. Techno Express Solution SLU (TEX) enpresak 2016ko urrian hornitu zuen gailuaz, lehenbizikoz.

⁸ <https://www.taxibutler.com/es/taxi-order-button-hotels-bars-restaurants/>

⁹ <http://www.starttaxi.com/>



ez lukeela eragotziko jendearentzat irekita dagoen establezimendu batetik taxia eskatzea. Aitzitik, antzeko ondorioak dituen sistema alternatiboren bat erabili besterik ez litzateke egin beharko.

21. Ondorioz, erreferentziazko produktu-merkatua ezin da «botoiak» izeneko gailuak merkaturatzen duten merkatura mugatu, baizik eta telefonoak, tabletak, ordenagailuak eta abar merkaturatzeko merkatura zabaldu behar da, gailu horiek guztiek aukera ematen baitute jendearentzat irekita dagoen establezimendu bat eta taxilari edo elkarte bat komunikatzea.

2. Merkatu geografikoa

22. Erreferentziazko merkatu geografikoari dagokionez, honela definitzen da, Europako Batzordeak merkatura definitzen zuen komunikazioaren 8. apartatuan (97/C 372/03): «erreferentziazko merkatu geografikoak barne hartzen du eraginpeko enpresek produktuak hornitu eta erreferentziazko zerbitzuak ematen dituzten zona; bertan, lehia-baldintzak behar bezain homogeenak dira, eta hurbileko beste zona geografiko batzuetatik bereiz daitezke, lehenengoan nagusi diren lehia-baldintzak apur bat desberdinak baitira besteetan dauden baldintzekin alderatuta».

23. Kasu honetan, kontuan izanik gailuak erabiltzen dituzten enpresen kokapen geografikoa (jendearentzat irekita dauden establezimenduak eta Donostiako bi taxi-elkartek) eta taxi-zerbitzuak eman ahal izateko lizentziak udalek ematen dituztela (kasu honetan, Donostiako Udala), Donostia hartzen da erreferentziazko merkatu geografikotzat.

3. Erreferentziazko merkatuaren inguruan ateratako ondorioa

24. Ondorioz, aztertzen ari garen jokabideari dagokionez definitu den erreferentziazko merkatura Donostian jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik taxiak eskatzeko gailuak merkaturatzen duten merkatura da, baita Donostian taxi-zerbitzu publikoa ematen duen bere merkatu lotua ere.



IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Kolusio-jokabidea

A. Aplika daitekeen araudia

a. LDLren 1. artikulua

25. LDLren 1.1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, baldin eta horien helburua estatu osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

Beraz, LDLren 1. artikulua aplikatzearen ondorioz, borondateen kontzertu bat egon behar da hainbat eragile ekonomikoen artean.

b. EB Erregelamendua

26. Jokabidea Europako Batzordearen 2010eko apirilaren 20ko 330/2010 Erregelamenduaren (EB) esparruan balioetsi behar da; hain zuzen, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturen 101. artikulua 3. apartatua akordio bertikalen eta praktika itunduen kategoria jakin batzuetan aplikatzeari dagokionez (aurrerantzean, kategoriakako salbuespenen Erregelamendua)¹⁰, honela definitzen dituena **akordio bertikalak**:

akordio edo praktika itunduak, akordioaren edo itundutako praktikaren ondorioetarako ekoiztu edo banatzeko kateko **plano desberdinetan** jarduten duten bi enpresaren edo gehiagoren artean sinatuak eta aldeek ondasun edo zerbitzu jakin batzuk erosi, saldu edo birsaltzeko baldintzei dagozkienak.

27. Kategoriakako sailkapenen Erregelamenduaren 2.1 artikulua EBFTren 101. artikulua eta LDLren 1.1 artikulua akordio bertikalekara aplikatzeko salbuespen orokorra ezartzen du.

Dena dela, Erregelamenduaren 3. artikulua ezartzen du 2. artikuluko salbuespena aplikatuko dela baldin eta hornitzailearen merkatuaren zatiak ez badu kontratuko ondasunak eta zerbitzuak saltzen diren erreferentziazko merkatuaren % 30 gainditzen, eta eroslearen merkatuaren zatiak ez badu

¹⁰ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32010R0330&from=ES>



kontratuko ondasunak eta zerbitzuak erosten diren erreferentziazko merkatuaren % 30 gainditzen.

c. Europako Batzordearen gidalerroak

28. Murrizketa bertikalei buruzko Europako Batzordearen gidalerroen 192. apartatuak¹¹ honako hauek sartzen ditu «**hornikuntza eskusiboa**» delakoan:

hornitzailea kontratuko produktuak, oro har edo erabilera jakin baterako, erosle bakar bati saltzera behartuta egotea elementu nagusizat duten murrizketak. Murrizketa horiek hornikuntza eskusiboko obligazio-itxura har dezakete, bai birsalmentarako, bai erabilera jakin baterako, erosle bakar bati saltzeko aukera baitu hornitzaileak.

29. Bestalde, gidalerroen 193. apartatuak ezartzen du Erregelamenduak hornikuntza eskusiboa salbuesten duela hornitzailearen merkatu-kuotak ez duenean % 30 gainditzen, bereziki larriak ez diren beste murrizketa bertikal batzuekin nahasten denean ere.

Dena den, 194. apartatuak eranstean duenaren arabera, aurreikus daiteke ondorio negatiboak sortzea eroslearen merkatu-kuotak, bai hornikuntza-merkatuaren beheko mailan, bai erosketa-merkatuaren goiko mailan, % 30 gainditzen duenean.

30. Halaber, zera ezartzen du 97. apartatuak:

Akordio bertikal batek lehia murrizteko efektua duen ebaluatzeko, **murrizketa bertikalak dituen erreferentziazko merkatuaren egungo egoera edo etorkizuneko egoera posiblea eta akordioan murrizketa bertikalik izan ezean nagusituko litzakeen egoera alderatuko dira**. Kasu indibidualak ebaluatzeko, Eurhiri artekoopako Batzordeak, kasuaren arabera, benetako ondoreak nahiz ondore posibleak izango ditu kontuan. Akordio bertikalak lehiaren murriztailetzat hartzeko, benetako lehian edo lehia posiblean izan behar duten eragina hain izan behar da handia, non espero behar baita, erreferentziazko merkatuan, ondorio negatiboak izatea ondasunen eta zerbitzuen prezioetan, ekoizpenean, berrikuntzan eta aniztasunean nahiz kalitatean. (...)

B. Jokabidea aztertzea

31. Kasu honi dagokionez, taxiak jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik eskatzeko «1Taxi! hotel» gailuaren hornikuntza eskusiboko kasu bat da, EGA eta VALLINA TELETAXI enpresen artekoa.

¹¹ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:130:0001:0046:ES:PDF>



a. Jokabidea salbuestea

32. Jokabide hau salbuetsiko litzatekeen aztertzeko, 330/2010 Erregelamenduaren (EB) 2. artikulua ondoz ondo¹², aztertu beharra dago hornitzailearen merkatuaren kuotak ez duen kontratuko ondasunak eta zerbitzuak saltzen diren erreferentziazko merkatuaren % 30 gainditzen, bai eta eroslearen merkatuaren kuotak ez duen kontratuko ondasunak eta zerbitzuak erosten diren erreferentziazko merkatuaren % 30 gainditzen ere.

33. Hornitzailearen merkatuaren kuotari dagokionez, erreferentziazko merkatua jendearentzat irekita dauden Donostiako establezimenduetatik taxiak eskatzeko gailuak merkaturatzekoa dela definitu ondoren, EGA enpresaren merkatu-kuota oso txikitzen hartu behar da, merkatu horretan, botoiak, telefonoak, tabletak eta ordenagailuak ere barne hartzen baitira.

Hain zuzen ere, 35 establezimenduk dituzte EGA enpresak merkaturatutako botoiak; beraz, Donostian taxia kontratatzeko zerbitzua erabil dezaketen establezimenduen zati oso txikia da (ostalaritzako lokalak, joko- eta apustu-aretoak, ospitaleak, etab.)¹³. Ondorioz, argi dago establezimendu horietan «1Taxi! Hotel» botoiak ez diren beste bitarteko batzuk erabiltzen direla.

Hala, RADIO TAXI DONOSTI elkarteak adierazi du botoiak instalatuta ez dituzten tokietan, telefono bidez edo flotak kudeatzeko sisteman txertatuta ez dagoen sistema baten bidez eskatzen direla taxiak. VALLINA TELETAXI enpresak, bestalde, adierazi du, «botoien» ordez, telefono-deiak edo bere posta elektronikora zuzendutako mezuak erabiltzen dituela.

34. Eroslearen merkatu-kuotari dagokionez, kontuan hartu ahalko litzateke VALLINA enpresak ez duela kuotarik taxi-zerbitzuen merkatuan; izan ere, Legeak eskatzen duen bezala, ez du garraio-enpresa batek ematen zerbitzua, taxilari autonomoek baizik.

Hala ere, kontuan izanik ez dutela taxilari indibidualek erosi «1Taxi! Hotel» gailua, VALLINA enpresak baizik, zeinak, kudeaketa-zerbitzuak eta irratitaxiko zerbitzuak ematen dizkien taxilariari –horien artean, taxiak «botoien» bidez eskatzeko zerbitzua– eta, ondoren, hilean behin, bazkide bakoitzari fakturatzen dien, VALLINA enpresaren merkatu-kuota bat zehaztu behar da. Horretarako,

¹² Kataluniako Lehiaren Agintaritzak (ACCO) behin baino gehiagotan aztertu du ustez lehiaren aurkakoak diren jokabideak Lehiaren 330/2010 Erregelamenduaren (EB) manuei egokitzen zaizkien. Ikus 48/2012 espedientea, *Quioscs de Barcelona*, eta 78/2016 espedientea, *Taxímetros*.

¹³ Ostalaritzako 1.337 establezimendu, 60 joko- eta apustu-areto eta 8 ospitale.



kontuan hartu behar da Donostiako taxilarien afiliazio-maila, zeina, gordetako informazioan adierazitakoaren arabera, VALLINA TELETAXI enpresaren kasuan, % 50,64koa den (RADIO TAXI DONOSTIren kasuan, berriz, % 48,70).

35. Ondorioz, erosleak % 30ekoa baino handiagoa den merkatu-kuota duenez, 330/2010 Erregelamenduaren (EB) arabera, aztertutako jokabidea ez litzateke berez salbuetsiko.

b. Lehia murriztea

36. Jokabide hau berez salbuetsita ez dagoela zehaztu ondoren, lehia murrizteko efekturik duen aztertu behar da. Horretarako, gidalerroekin bat etorriz, egungo egoera eta akordioan murrizketa bertikalik ez egotekotan gailenduko litzatekeen egoera alderatu behar dira.

37. Hori egiteko, aipatu beharra dago «1Taxi! Hotel» botoiak hornitzeari uko egiteak soilik taxiak kontratatzen diren segmentu bati egiten diola kalte –taxiak telefonogune baten bidez erreserbatzen diren segmentua–, eta ez diela kalterik egiten *street taxi* izeneko segmentuei (bide publikoan dabilzan ibilgailuak kontratatzea eta taxi geltoki gisa gaituta dauden gunetan ibilgailuak kontratatzea).

Halaber, ez lioke erabateko kalterik egingo ibilgailuak telefonogune, taxi-irradi edo beste bitarteko baten bidez kontratatzen diren segmentuari; izan ere, ez lieke kalterik egingo etxebizitza partikularretatik edo lantokietatik eginiko kontratazioei, ez eta jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik bezeroek edo lokal horietako langileek telefono-deien, posta elektronikoaren edo bat-bateko mezularitzaren eta Interneteko formularioen bidez egiten dituzten kontratazioei ere.

Beraz, murrizketa (i) jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik (ii) bertako langileek (iii) lokaletan instalatuta dauden «botoien» bidez egiten dituzten kontratazioetara mugatzen da.

38. Halaber, zehaztu da RADIO TAXI DONOSTI eta VALLINA enpresek erabiltzen dituzten «botoiez» gain, badaudela jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik taxiak erreserbatzeko beste sistema batzuk (telefono-aplikazioak, ordenagailu-programak, telefono-deiak, bat-bateko mezularitza edo posta elektronikoa, Interneteko formularioak).



- 39.** Bestalde, adierazi den bezala, salatzaileak 11 establezimendutan dauka instalatuta «Nurit 8010» gailua; eta, VALLINAK, «1Taxi! Hotel» gailua, 35 establezimendutan. Beraz, askoz establezimendu gehiago dira gailurik instalatuta ez dutenak, eta, halere, ezin da defendatu establezimendu horietatik taxirik ez erreserbatzea. Horregatik, bi elkarteek azaldu dute, hain zuzen ere, bitarteko alternatiboak erabiltzen dituztela establezimendu horietan.
- 40.** Era berean, VALLINA eta RADIO TAXI DONOSTI enpresek helarazi duten informazioari esker, jakin ahal izan dugu, 5 establezimendutan, bi gailuak instalatuta daudela –VALLINAK argazkien bidez frogatu ditu horietako batzuk–; beraz, «1Taxi! Hotel» gailuak, alde batera utzita prestazio hobeak edo okerragoak dituen, ez du eragozten aldi berean «Nurit 8010» gailua edo beste «botoirik» instalatzea.
- 41.** Ondorioz, kontuan izanik taxi-zerbitzuaren zati oso mugatuan eragina duela –ez *street taxi* izeneko segmentuetan, ez etxebizitzetatik nahiz lantokietatik egiten diren kontratazioak ezta jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik beste bitarteko batzuk erabilia egiten diren kontratazioak ere–, beste hornitzaile batzuek «botoien» antzeko funtzioak dituztela eta, era berean, jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik taxiak kontratatzeke sistema alternatiboak daudela –«botoiak» instalatuta dituzten lokalekin alderatuta, lokal gehiagotan erabiltzen dira– eta establezimenduetan «botoiak» aldi berean instalatzeko mugarik ez dagoela, adierazi beharra dago EGAK «1Taxi! Hotel» gailua RADIO TAXI DONOSTI enpresari hornitzeari uko egitearen ondorioz ez dela Donostiako taxi-zerbitzuen merkatuko lehia murriztuko.
- 42.** Hori dela eta, aitortu behar da ez dela LDLren 1. artikulua inolako arau-hausterik egon.

2. Nagusitasunezko posizioaren abusua

- 43.** LDLren 2. artikulua debekatu egiten du estatuko merkatu osoan edo zati batean nagusi den enpresa ororen gehiegizko ustiapena.
- 44.** LDLren 2. artikulua aplikatzeak eskatzen du aztertzen ari den jokabidean esku hartzen duen eragile ekonomikoak –kasu honetan, EQUIPAMIENTOS GPS AURIGA SL (EGA)– aurretik zehaztutako erreferentziazko merkatuan nagusitasunezko posizioa duela frogatzea.



- 45.** Europako Batzordearen komunikazioan xedatutakoaren arabera –Europako Batzordearen kontrol-lehentasunei buruzko orientazioak, nagusi diren enpresen jokabide baztertzailen inguruko EB Tratatuaren 82. artikulua aplikatuz (EBAO 2009/C 45/02)¹⁴–, nagusitasunezko posizioa da enpresa bat botere ekonomikoko egoeran egotea eta erreferentziazko merkatuan benetako lehia galarazteko aukera izatea, bere lehiakide, bezero eta, azkenik, kontsumitzaileen aurrean askatasun-maila handiz jokatzeko aukera ematen diona.
- 46.** Erreferentziazko merkatua Donostian jendearentzat irekita dauden establezimenduetatik taxiak erreserbatzeko edozein gailu («botoiak», telefonoak, tabletak, ordenagailuak, etab.) merkaturatzekoa dela zehaztu ondoren, eta salatu den enpresak merkatuan duen kuota txikia dela egiaztatu ondoren –«botoien» eredu jakin bat hornitzen du («1Taxi! Hotel»), zeina Donostiako ostalaritzako 1.337 establezimendu, 60 joko- eta apustu-lokal eta 8 ospitaletatik, 35 establezimendu publikotan instalatuta dagoen (2017. urtean)–, ezin daiteke esan erreferentziazko merkatuan botere ekonomikoko egoeran dagoenik eta bere lehiakide, bezero eta, azkenik, kontsumitzaileen aurrean askatasun-maila handiz jokatzeko aukera duenik.
- 47.** Beraz, salatu den enpresa ez dagoenez nagusitasunezko posizioan, ezin zaizkio 2. artikuluko xedapenak aplikatu.

3. Lehiari kalte egin diezaiokeen lehia desleiala

- 48.** Azkenik, LDLren 3. artikuluari dagokionez, debekatu egiten ditu lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak. Interes publikoari kalte eginez gero, lehia faltsutzeak ondorio nabaria dauka eraginpeko merkatuan.
- 49.** Beraz, zenbait baldintza bete behar dira: lehia desleialeko egintza bat egotea, egintza desleial horrek lehia askea faltsutzea eta egintza desleial horrek interes publikoari kalte egitea.
- 50.** Aztergai dugun kasuan, salatu den jokabidea ez da sartzen Lehia desleialaren urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeko kasuetan. Era berean, jardundakotik ez da ondorioztatzen salatu den jokabideak interes publikoari kalte egingo dionik, ezta lehia askea faltsutuko duenik ere.

Ondorioz, ez zaio LDLren 3. artikulua aplikatu behar salatutako jokabideari.

¹⁴ [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52009XC0224\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52009XC0224(01)&from=ES)



4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

51. LDLren 49.3 artikulua honako hau xedatzen du:

Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokabideak izateagatik hasi behar diren prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea hautsi izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

52. Azaldutakoaren arabera, Ikerketa Zuzendaritzak ondorioztatu du ez duela Donostiako taxiaren gailuen merkaturan Lehia Defendatzeko Legea hautsi izanaren nahikoa zantzurik ikusi.

53. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeko 10. artikulua honako hau xedatzen du¹⁵:

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)

e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditente bihurtu baino lehen, (...)

54. LDLren 49.3. artikulua honako hau xedatzen du:

3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokabideak izateagatik hasi behar diren prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea hautsi izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

55. Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsitako Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren (LDE) 25. artikulua ezartzen duenez, salaketa jarri izanak ez du esan nahi Ikerketa Zuzendaritzak ezinbestean zehapen-prozedura abiatu behar duenik. Prozedura ez hasteko erabakia salatzaileari jakinarazi beharko zaio, azalduz zergatik ez den bidezkoa prozedura irekitzea.

56. Zera xedatzen du otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren 27. artikulua:

Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak (kasu honetan, Lehiaren Euskal Kontseiluak) prozedura ez hasi eta uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 44. eta 49.3 artikuluetan ezarritako baldintzetan jarduerak artxibatze aldera, Ikerketa Zuzendaritzak jasotako salaketaren, aurretiaz egindako jardueren, hala dagokionean, eta artxibatze proposamenaren berri emango dio.

¹⁵ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



57. Aurrekoarekin bat eginez, eta, txostenean oinarrituta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espediterik ez hasteko eta salaketa amaitutzat jotzeko proposamena egin zuen 2018ko abenduaren 3an. Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena onartu du, ez baitago arau-hausteen zantzurik. Hortaz, ezin da zehapen-espediterik hasi, aipatutako 27. artikuluko bigarren apartatuarekin bat eginez.

IV. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

BAKARRA- Ez da zehapen-prozedurarik hasiko, eta amaitutzat joko da erreferentziazko salaketaren esparruan egindako eta izapidetutako jarduketak; izan ere, ez da egiaztatu zantzurik dagoenik ondorioztatzeko Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi denik.

Jakinarez bekie ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adieraz bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.